



Absolbitu egin dituzte Durangoko Correos eraikina okupatzeagatik epaitutako lau gazteak

ANBOTO :: 04/04/2025

Epaileak froga faltagatik absolbitu ditu lau gazteak.

Atzo goizean Durangoko lau gazte epaitu zituzten, Correoseko eraikina okupatzeagatik. Iazko abenduaren 6ko gertakarien harira epaitu dituzte, egun hartan postetxe zaharrera sartu, bertan gaztetxea atondu eta horrekin guztiarekin "usurpazio delitua" egin zutelakoan. Atzo izan da epaiketa, eta Kaletik Gaztetxera dinamikako kideen esanetan, atzo bertan kaleratu zen epaia: lau gazteek absoluzioa jaso dute, "froga faltagatik".

Goizeko 9:30etan gazte ugari batu ziren epaitegiaren aurrean, auziperatutako lau kideei babesa adierazteko eta gaztetxearen aldeko aldarriak kaleratzeko. "Gaur ere, asanbladak babes handia jaso du", azaldu zuten Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek: "Ikasleen eta inguruko asanbladen partetik, batez ere". Hori dela eta, eskerrak eman zizkieten hurbildutako guztiei, baita Defentsa Komunitateari ere. Gainera, aurrera begira, "gaztetxearen aldeko borrokan" jarraituko dutela berretsi dute: "Gaurkoaren ostean, gaztetxearen aldeko borrokan jarraituko dugu, Durangon zein beste herrietan borrokan dabilzan asanbladekin", adierazi dute.

<https://eh.lahaine.org/absolbitu-egin-dituzte-durangoko-correos>